

ZUMARRAGA-URRETXU / Euskarazko irakurleen taldea martxan dago berriro

Zumarraga-Urretxuko euskarazko irakurle taldeak 2010-2011 ikasturteko lehenengo bilkura egingo du datorren azteazkenean, arratsaldeko 7etatik aurrera.

Iaz Zelai-Arizti kultur etxean ospatu baziren euskarazko irakurle taldearen bilkurak, aurten Urretxun izango dira. Lehenengo bilkura hau Urretxuko kultur etxean izango da, eta aurrera begira, Urretxuko liburutegiko berritze lanak bukatu ostean, saioak liburutegiko gela berezi batean izango dira. Lehenengo saiorako ahalegin gogotsua egin behar izan dute irakurleek, datorren astean, Joan Mari Irigoienek 'Haragiaren gauak eta egunak' liburua izango baita aztergai, Orbetarrak trilogiako bigarren liburukia, mila orrialde inguruko liburu mardula. Apirilean, 'Bestea da mundua' liburuaren gaineko solasaldia egin zen irakurle taldean, Joan Mari Irigoien bera bertan zela, eta orain bigarren liburuaren txanda da. Trilogia honetan, XX. mende haserako euskal familia baten bilakaera kontatzen da, ezerezetik handiki izatera igaro den familia batena, hain juxtu. Trilogia itxiko duen hirugarren liburua ere, gutxi barru argitaratuko du Irigoienek, Altzako idazle handiak.

Iaz hamabost lagun inguruko taldea elkartu zen hilabetero, adostutako liburu baten gaineko solasaldia egiteko. Taldeak zabalik dauzka bere ateak, euskaraz irakurtzeko zaletasuna duen edonork eman dezake izena. Iaz bezala, Gorka Azkarate izango da taldeko gidaria. Ekimena Zumarraga-Urretxuko udal euskaltegiaren eta Udalen babesarekin antolatu da aurten ere. Ikasturtean zehar, zenbait idazlek saioetan parte hartzea ere espero da, iaz Uxue Alberdi, Bernardo Atxaga eta Joan Mari Irigoien izan ziren moduan.